

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: MUNIGEX - 2025MDIR0001 Internet bidez egindako erregistroa: BUZTIN ATE elkartearekin hitzarmena

ESPEDIENTEA: 2025MDIR0001

INTERESDUNA: BUZTINATE BUZTIGINTZA ELKARTEA (IFK: G75166165)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 1000,00 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du -ren alde, 2025. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta Buztin Ate-ren (IFK: G75166165) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- BUZTIN ATE BUZTINGINTZA ELKARTEA-ri 1.000,00-ko dirulaguntza ematea Elkartek 2025 urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren 6. klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 1000,00-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.481.334.54.01 partidari egoztea.

BOSGARRENA.- 2025/1498 Alkate Erabakia indargabetzea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025MDIR0001-Alkate erabakia/Resolución ()